

**Espedientearen kodea:** 2024KO210001

**Espedientearen gaia:** Oiartzungo Madalensoro pilotalekuaren azpiko aparkalekuan libre dauden garaje plazak errentamenduan esleitzeko lehiaketa

**Titularra:** OIARTZUNGO UDALA

## DEKRETUA

2024ko martxoaren 15eko 402 zb.ko Alkate Dekretuz erabaki zen onartzea Oiartzungo Madalensoro pilotalekuaren azpiko aparkalekuko garaje plazak errentamenduan esleitzeko lehiaketarako espedientea, prozedura irekiaren bidez, eta azken horri hasiera ematea. Halaber, erabaki zen onartzea kontratua araupetzeko Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiria.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren iragarki taulan eta kontratatzailearen profilean argitaratu zen iragarkia, eta zortzi pertsonak aurkeztu zuten parte hartzeko eskaera:

- 08902846Y N.A.N. zenbakiduna
- 44154911V N.A.N. zenbakiduna
- 15392326J N.A.N. zenbakiduna
- 15961553J N.A.N. zenbakiduna
- 15972004E N.A.N. zenbakiduna
- 32376015L N.A.N. zenbakiduna
- 44158750S N.A.N. zenbakiduna
- 15968795X N.A.N. zenbakiduna

2024ko maiatzaren 16an kontratazio mahaiak, ekitaldi publikoan, artxibo edo kartazal bakarrak ireki zituen. Eskatzaileek aurkeztutako agiriak kalifikatu ondoren, Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agirian ezarritakoarekin bat, zozketak egin zituen eta behin-behineko izangai zerrendak osatu zituen, plaza zehatzen esleipen proposamenarekin.

Dena den, behin behineko zerrenda horiek onartu aurretik eskatzaile batzuei zuzenketak egiteko eta dokumentazio gehigarria aurkezteko errekerimendua egin zitzaion. Aurkeztutako dokumentazioa ebaluatuta, eta beharrezko egiaztapenak egin ondoren, kontratazio mahaiak behin-behineko izangai zerrenden proposamenak aurkeztu zizkion kontratazio organoari.

2024ko ekainaren 12ko 911 zk.ko Alkate Dekretuz erabaki zen onartzea kontratazio mahaiak proposatutako behin-behineko izangai zerrendak, plaza zehatzen esleipen proposamenarekin. Halaber, erabaki zen izangai zerrenda horiek Oiartzungo Udalaren iragarki taulan eta kontratatzailearen profilean ([www.oiartzun.eus](http://www.oiartzun.eus)) argitaratzea, eta une horretatik aurrera 8 egun naturaleko epea ematea erreklamazioak egiteko.

Epe horretan erreklamazio bat aurkeztu da, eta zegokion erantzuna eman zaio, dagokion organoaren erabakiaren bidez.

Oiartzungo Madalensoro pilotalekuaren azpiko aparkalekuko garaje plazak errentamenduan esleitzeko lehiaketa arautzen duen Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiriaren arabera, erreklamazioak aurkezteko emandako 8 egun naturaleko epea igarota erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, zerrendak onartutzat joko dira behin betiko; erreklamazioak aurkeztuko balira, onetsiak edo ezetsiak izango dira, dagokion organoaren erabakiaren bidez, eta erabaki horrekin behin betiko zerrendak onartuko dira.

Behin betiko zerrendak onartutakoan, kontratazio organoak garaje plaza zehatzen behin betiko esleipena onartuko du; parte hartzaile guztiei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, Oiartzungo Udalaren iragarki taulan eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da ([www.oiartzun.eus](http://www.oiartzun.eus)).

Kontratazio organoak, esleipena jakinaraztean, esleipendun bakoitzari adieraziko dio zein egun eta ordutan bertaratu behar duen Oiartzungo Udaleko bulegoetara kontratua formalizatzeraz, beti ere esleipenaren jakinarazpena bidali eta ondorengo 15 egun baliodunetan.

Dena den, esleipendunek kontratua formalizatu aurretik behin betiko bermea jarri beharko dute, beren betebeharrak beteko dituztela bermatzeko, zeina errentamenduaren 3 hilabeteko prezioaren baliokidea izango den, 2095 5060 11 1060024774 kontura banku-transferentzia eginez.

Era berean, esleipendunei ohartaraziko zaie jarritako egun eta orduan agertzen ez badira, kontratua sinatzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen ez badituzte edo, adierazitako unean formalizatzea galaraziko balute, esleipena erabat ondoriorik gabe geratuko dela.

Bukatzeke, izangai zerrendan egonda plazarik esleitu ez zaien eskatzaileek, hurrenkera hori mantenduz, zain zerrenda osatuko dute. Horrela, bada, Oiartzungo Madalensoro pilotalekuaren azpiko aparkalekuan lehiaketa honetan nahiz aurretik esleitutako garaje plazaren bat libre geratzen bada, plaza horiek aipatutako zain zerrendako hurrenkerearen arabera esleitu dira, lizitazio berririk deitzeko beharrik gabe, Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agirian jasotakoarekin adostasunean.

Hori horrela izanik, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak eta Toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan,

## ERABAKI DUT

**Lehen.- Onartzea** Oiartzungo Madalensoro pilotalekuaren azpiko aparkalekuko garaje plazak errentamenduan esleitzeko lehiaketako **behin betiko izangai zerrendak eta plaza zehatzen behin betiko esleipena**.

Desgaitasunen bat duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuei erreserbatutako garaje plazei dagokienean:

HURR.	ESKATZAILEA (N.A.N. zenbakia)	PLAZA ZKIA.
1	15961553J	39

Gainerako garaje plazei dagokienean:

HURR.	ESKATZAILEA (N.A.N. zenbakia)	PLAZA ZKIA.
1	15968795X	28
2	44154911V	46
3	15972004E	47

**Bigarrena.- Onartzea** Oiartzungo Madalensoro pilotalekuaren azpiko aparkalekuko garaje plazak errentamenduan esleitzeko lehiaketako **zain zerrenda**:

HURR.	ESKATZAILEA (N.A.N. zenbakia)	PLAZA ZKIA.
1	08902846Y	-
2	44158750S	-
3	32376015L	-



**Hirugarrena.**- Ebazpen honi dagozkion **jakinarazpenak eta argitalpenak** egitea.

**Laugarrena.- Errekerimendua egitea** esleipendunei, ebazpen honen jakinarazpena bidali eta ondorengo 15 egun balioduneko epean Udal honetako Idazkaritza sailera agertzeko, astelehenetik ostiralera 8:00etatik 14:30etara, **kontratua formalizatzena**. Horren aurretik, ordea, beharrezkoa izango da **behin betiko bermea** jartzea, errentamenduaren 3 hilabeteko prezioaren baliokidea, 2095 5060 11 1060024774 kontura banku-transferentzia eginez.

Epe horretan agertzen ez badira, kontratua sinatzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen ez badituzte edo, adierazitako unean formalizatzea galaraziko balute, esleipena erabat ondoriorik gabe geratuko da.

Alkate udalburuak agintzen eta sinatzen du.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Joana Mendiboure

Alkatea

Elektronikoki sinatua



EKS | CSV: **ESKUa52cb93f-67d2-4b5f-bc20-0be4ab7a0cc5**

Egiatzatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024KO210001-Dekretua/Decreto (OIARTZUNGO UDALA)